




FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozioa aurrera eramateko funtsezko baliabide batzuk behar ditugu.

Horien artean 4 mota aurki dezakegu nagusiki:

BALIABIDE FISIKOAK

Baliabide fisikoen artean bulegoa, ordenagailua, mahaia, telefonoa aulkiak eta eserlekuak dauzkagu. Azken finean, gure lokalean dauden gauza material guztiak osaten dute gure baliabide fisikoak. Eguneko lanerako beharrezkoak izango ditugunak hain zuzen ere.



GIZA BALIABIDE ETA INTELEKTUALAK

Gure enpresa 6 langilek osatzen dute. Langile horietako 4, guk geuk izango gara eta finkoak izango gara, hau da, beti egongo gara proiektuan lan egiten.

Izaro marketinean espezializatuak dira, publizitateta, web orria eta panfletoak egiten hoberenak dira eta gure sozietatearen propaganda eta informazioa leku guztietatik banatzen dituzte. Honekin bezero berriak lortuko ditugu eta gure zerbitzua zabalduko da.




Henar bikaina da bezeroarekiko tratuekin. Harreman onak lortzen ditu haiekin, eta horri esker, bezeroak lortzen ditugu. Jendeak gero eta hobeto hitz egingo du gure negozioaz, bezeroak zoriotsu egiten eta beste bezero batzuk erakartzen.

Haizea oso ona da kontabilitatean. Negozioaren finantzen eta dokumentazioaren ardura hartuko du. Negozioaren informazioa eta kontuak eguneratzen ditu dena ordenean edukitzeko eta ahalik modu eraginkorrean lan egiteko.



Eneritzek koordinatzaile gisa lan egingo du, guztion lana kudeatzen eta dena behar bezala funtzionatzen duela ziurtatuko du.

Horrez gain, mediku eta garraio aseguru bat daukagu kontratatuta, gurekin lan egingo dutenak haien zerbitzuak behar ditugunean.



FINANTZA BALIABIDEAK

Finantza-baliabidez ari bagara, gure aurrezkiak eta eskatuko dugun mailegua izango dira gure finantzaziorako behar ditugun iturriak. Hasierako inbertsioari aurre egiteko ezinbestekoak dira, bai lokala zein hasierako hilabetetako kostuak estaltzeko.

